

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 61. zk (azaroa 2025)

**Zorionak,
Helene, txapeldun!**

▼ **Aurtengo jaiek ere
bikainak,
kronika barruan**

▼ **Tarik Hassad Marzouk,
Itsasondoko herritarra**

▼ **Lur kutsatuak,
ingurumen
berreskuraketa**

03	Udaleko berriak
04	Haurreskola
05	Eskola
06-07	Guraso elkartea
08-11	Festen kronika
12-15	Elkarrizketa: Helene Reyes
16-17	Natura
18	Hitzar
19	Motzean: Tarik Hassad Marzouk
20-21	Eskola berria
22	Lur kutsatuak
23-25	Hemeroteka
26	Liburutegia / Errezeta
27	Euskara
28	Agenda

Sarrerako bertsoak

HONDARRIBIKO EGONALDIA

Doinua: *Ama begira zazu*

Hondarribi aldera
txango borobila
ondo pasa genuen
eta jolas pila
inguruan geneukan
kriston iskanbila
pozik ibili giñen
karramarro bila.



Kaixo, itsasondorrok! Beste behin ere zuen etxeetara ate joka gatoz, Itsasondo 2.0-ren ale berria dakarkizuegu. Aste eta hilabete oparoen ondoren, berriz ere herriko bizitzaren taupada paperean jaso dugu, zuen eskuetara ilusioz helarazteko.

Udaleko berrietan azken udalbatzan hartutako erabakiez ariko gara, gure herriaren egunerokoan eta etorkizunean eragina izango duten gaiak hurbiletik ezagutzeko. Haurreskolan, berriz, egokitzapen garaia bizi dute: irribarreak, negar txikiak eta lehen lagunak... urte hasierako une berezi horiek jaso dituzte beraien atalean.

Guraso elkartekoek gure ondarearen inguruan hausnartu dute; izan ere, gure historia eta ohiturak zaintzea da etorkizuna sendotzeko modurik onena. Hitzarrek ere badu zer ospatu: hiru urte bete ditu herriko energia komunitateak, eta egindako ibilbidea infografia eder baten bidez laburbildu dute, eta herriarren konpromisoa eskertu dute.

Gazteentzako tarte berezia ere bada: elkarrizketa luzean Helene Reyes izango dugu. Igeriketan Espainiako txapelketa irabazi du eta bere bidea, ilusioa eta ahalegina partekatu dizkigu. Harro egoteko moduko adibidea, dudarik gabe!

Gai nagusian, festetako kronika topatuko duzue: itsasondorrentzat hain bereziak diren egun horiek berriz bizitzeko aukera, argazki, anekdota eta irribarrez beterik.

Eta, noski, ez dira faltako gure klasikoak: liburuen txokoa, errezeta goxoa eta euskararen txokoko gomendioak, hizkuntzari eta kulturari arnasa ematen jarraitzeko.

Beste behin ere lortu dugu aldizkaria zuen etxeetara irits dadin, beti bezala jende askoren lan eta laguntzari esker. Guztion artean egiten dugu aldizkaria, eta guztion artean egiten dugu herria. Eutsi goiari!!

Udaleko azken albisteak: langile berriak eta azken erabakiak

.....
Itsasondoko Udalak azken hilabeteotan jarduera bizia izan du, eta hainbat arlotan urrats berriak eman ditu. Batetik, Udalak bi kontratazio berri egingo ditu datozen asteetan, Udalaren eguneroko jarduna indartzeko eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko helburuarekin.
.....



Langileetako bat herri-langileen laguntzaile gisa arituko da, udal brigadaren eguneroko lanetan laguntzen; bigarrena, berriz, administrazio elektronikoa ezartzeko administrari lanetan arituko da, udalaren barne-kudeaketa digitalizatzeko prozesuan laguntzeko.

Bi kontratazio horiek Toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 programaren esparruan gazteak kontratatzeke jasotzen dituzten dirulaguntzei esker egingo dira, eta 30 urtez azpiko bi langile kontratatuko dira. Ekimena Europako Gizarte Funtsak kofinantzatuta dago, eta gazteen enplegua sustatzeko eta tokiko administrazioen gaitasun teknikoa sendotzeko helburua du.

Aldi berean, udala atzeratutako gai administratiboak eguneratzen eta ohiko jardunera itzultzen ari da, eta horretara bidean azken udalbatzarretan hainbat erabaki hartu dira.

Horrela, 2024ko irailaren 24an egindako udalbatzarrean, Itsasondoko baserrietan ur-hornidura berritzeko II. faseko obren amaiera eta proposatutako likidazioa onartu ziren, baita obraren azken ordainketa egitea adostu ere.

Bilkura berean, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Itsasondoko Udalaren arteko hitzarmena 2026ko irailaren

30era arte luzatzea ere onartu zen, eta alkateari eskumena eman zitzaion hitzarmena sinatzeko.

Era berean, 2024ko Kontu Orokorraren espedientearen arauzko jendaurreko informazio-epea inolako erreklamaziorik edo oharpenik gabe igaro denez, udalbatzak behin betiko onarpena eman zion kontuari.

2025eko urriaren 30ean, goizeko 10:00etan egindako osoko bilkuran, aldiz, honako gaiak aztertu eta onartu ziren: batetik, Itsasondoko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatuko den hitzarmen eredia onartu zen, "ESKUA" espediente kudeatzailearen bidez oinarritzko administrazio-espedienteak ezartzeko. Alkateari eskumena eman zitzaion hitzarmena sinatzeko. Bestetik, 2026ko ordenantza fiskalen hasierako onespina egin zen, udal tasa eta zerga arauen eguneratze-prozesuari hasiera emanez.

Halaber, udalbatzak aho batez onartu zuen Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna. Itun hori tokiko eremutik ekintza klimatikoa eta energetikoa sustatzen duen ekimen nagusia da Europa mailan. Itunari atxikiz, Itsasondoko Udalak bere konpromisoa berretsi du ekimenaren helburu nagusiekin: deskarbonizazioa, klima-aldaketa egokitzea eta energia-pobreziaren aurkako borroka.



Egokitzapen aldia haurreskolan

.....
Irailean haurreskolara egokitzeko aldia hasten da. Prozesu hau haurreskolan berriak diren haurrek egin behar dute nahitaez.
.....

Aurreko ikasturtetik haurreskolan dauden haurrek ez dute egokitzapen prozesu hori egiteko obligaziorik, hala ere, egun batzuetan egitea gomendatzen diegu familiei.

Gure haurreskolan erabiltzen ditugun hainbat metodotan oinarritzen gara egokitzapena egiteko: Montessori eta Pickler metodoak, John Bowlbyren "atxikimendua eta egokitzapenaren teorian" eta Vicenç Arnaizen "la adaptación de los niños y sus familias" artikulua.

Bi urte egin aurretik, haurrek osatu gabe daukate etxeko erreferentearen barne irudia, atxikimendua seguruaren irudia. Etxekoen presentzia fisikoa behar dute seguru egoteko.

Adin horretako haurrek errutinen eta ohituen bidez barneratzen dituzte eguneroko sekuentziak eta egin beharrak. Horregatik funtsezkoa iruditzen zaigu etxearen eta haurreskolaren arteko koordinazio eta kooperazioa, hau da; etxean banaketa lantzen hastea, lotarako karroa erabiltzen hastea, janaria eta biberioa ematen hastea... Horrela, etxekoekin banaketa egiten denean haurrek errekursoak edukiko dituzte gero haurreskolan praktikan jartzeko.

Egokitzapena burutu behar duen etxeko erreferentearen jarrera ere oso garrantzitsua da. Gela barruan egongo den denboran hezitzailearekin izango duen harremanak haurrari zuzenean eragiten dio. Etxekoa lasai eta gustura sumatzen badu, haurra esploratzen hasiko da, inguruari aukera ematen. Mundu berri hori esploratzen eta esperimentatzen hezitzailea ezagutuz joango da. Etxekoak gelatik irteten hasten direnean hezitzaileengan bilatuko du segurtasuna.

Haurreskolan konfiantza osoa dugu haurrak gai direla beren kabuz beren gorputza eta mugimenduak barneratu, frustazio txikiak gainditu eta poliki-poliki beraien lorpenak gauzatzeko (Pickler metodologia). Horrek gero eta autonomoagoak izaten laguntzen die, eta beraien buruengan konfiantza izaten ere bai. Prozesu horretan hezitzaileok banakako zaintza uneak indartzen ditugu beraiekin atxikimendua lantzeko. Gure lanaren ardatza atxikimendua eta gurekiko konfiantza izango dira.

Egokitzapenaldiak, printzipioz, hamabost egunekoa iraupena du, betiere haurraren erritmoa kontutan hartuta. Etxekoekin adostu eta beharra ikusiz gero, luzatzeko aukera izango dugu.

Aurreneko egunetan haurra bere etxekoarekin gelaren barnean egongo da espazioa eta hezitzailea ezagutzen. Izan ere, egokitzapen aldia ez da soilik haurarentzako prozesua, etxekoak eta hezitzaileak ere egokitu behar dira egoera eta ohitura berrietara.

Behin espazioa eta atxikimenduaren oinarria sendotzen hasita, etxekoa kanpora irteten hasten da. Momentu horretan kontentzio lan handia egiten du hezitzaileak, haurrak konfiantza hartu arte. Behin konfiantza hori sendotzen eta bere beharrak asetzen zaizkiola konturatzean, haurra lasaitu eta jolas autonomoan hasten da. Gurasoa kanpora ateratzen den momentuan haurrak ikasi behar du beti etorriko direla bere bila, horregatik aurreneko irtenaldian gurasoa bost minutu bakarrik aterako da. Sartzean bera hartu eta etxera joango da. Haurra lasai geratzen bada, etxekorik gabeko denbora luzatzen joango gara progresiboki bere ordutegi osoa bete arte. Haurraren denbora tartea igotzen goazen heinean jana, loa eta pardedaldeketa

barneratzen hasiko gara egokitzapen prozesua bukatu arte eta haurrak bere ordutegi osoa bete arte.

Herri eskola

.....
1969tik 2023ra bitarte, ikasle ugari pasa dira herri eskolako eraikin zaharretik. Azkenean eskolako eraikina bota dute eta oroitzapen asko utzi dizkigu. Hainbat belaunalditako ikasle ohi batzuk elkarriketatu ditugu eta haiek kontatutako istorio labur batzuk ekarri dizkizuegu lerro hauetara.
.....



Lehenengo elkarriketatua 1975. urtean hasi zen eskolan. Aipatu digu bi eraikinen artean kotxeentzako aparkalekua zegoela garai hartan; baita gaizki portatzen zenari egurrezko erre-gelakin hatz puntetan ematen zietela ere.

Hurrengo elkarriketatua 1978tik 1989. urtera arte ibili zen eskolan. Ondo gogoratzen da gaztaina bila joan ziren egun batez. Batzuk ez zituzten gaztainak jaso nahi eta harriak sartu zituzten poltsan. Baserritar bat eskopeta batekin etorri omen zen, gaztainak bereak zirela esanez. Zigorra izan zuten, baserritarrari barkamena eskatzera joatea.

Bitxikeria moduan aipatu digu, baita ere, eskolan fotokopiagailurik ez zutela eta fotokopiak egiteko menbrilo moduko tresna arraro bat erabiltzen zutela. Boligrafo berezi batekin orri batean idazten zuten eta orria menbriloaren gainean jartzean tinta bertan gelditzen zen. Orduan, beste orri bat jartzen zuten menbriloaren gainean eta idatzitakoa orri txurian kopiatzan zen.

Beste ikasle bat 1979tik 1990 urtera arte ibili zen eskolan. Haur hezkuntzako irakasle batekin gogoratzen da bereziki. Beti takoidun zapatekin ibiltzen zen. Etxeko zapatilak ere takoidunak omen zituen. Horrez gain, 6. eta 7. mailako (gaur egungo LH6 eta DBH-1) ikasleak Toledora joan zireneko bidaia aipatu digu. Astea igarotzera joan ziren. Han, Mallorkako eta Andaluziako haurrekin batera igaro zuten astea.

Hurrengo elkarriketatua 1979an hasi zen eskolan eta 1993. urtera arte izan zen bertan. Garai hartan Joxemari, Maite eta Amaia zituzten irakasle eta saskibaloiko kantxa zegoen goiko eta beheko eraikinen artean. Elurra egiten zuenetan, elur bolak jaurtitzen omen zituzten eskola bidean igarotzen ziren ikaskideei.

Beste hau beranduxeago hasitakoa da eta gehienetan senideekin gelakide izatea tokatu zitzaiola aipatu digu. Sukaldaritza, argazkigintza eta taila tailerrak izaten zituztela kontatu digu. Horrez gain, oraitzapen oso politak ditu Ertoetxen egindako antzerkiez edota bere kide batekin egin zuen Itsasondoko trenbidearen maketaz. Hizkuntza ezberdina hitz eginagatik, ederki lortu omen zuten elkar ulertzea.

Azken hau 2001ean hasi zen eskolan. Gustura ibiltzen zela aipatu digu eta jangelako orduan sugandilak harrapatzera joaten zirela kontatu digu.

Hauek izan dituzue guk bildu ditugun istorioetako batzuk. Gustatu izana espero dugu eta zuei ere, lerro hauek irakurtzerakoan, ziur gaude oroitzapen ugari etorri zaizkizuela.



Gure ondarea, uste baino gertuago

Urrutira joan gabe, Itsasondotik uste baino gertuago dugu gure ondarea. Asteburuan zehar zein oporraldi garaian, Goierriko txokoak bisitatu eta bertan ditugun ondareguneak ezagutzeko hamaika aukera daude.

Ordiziako azoka ezaguna dugu eta asteazken ugaritan bisitatu badugu ere, agian ez dugu ezagutzen D'Elikatuz, Goierriko Interpretazio Zentroa eta Elikadura eta Gastronomia Gurea. Bizitza osasuntsu baterako gomendioak, bertako produktu zein elikagaien kontsumoak dituen eraginak zein Goierriko eskualdeari buruzko informazioa eskuratzeko leku bikaina da. Ba al dakizu? Ordiziako alde zaharrean zehar, herriko historiari buruzko bisita gidatuak ere egiten dituzte.

Hegoalderago joanda, Joxe Migel Barandiarani eskainitako museo bat dugu Ataungo San Gregorio auzoan. Arkeologia, etnografia eta mitologiak betetako espazioa da, eta bertan Barandiaranen bizitza eta obra gertuagotik ezagutzeko aukera izango duzue. Museoaren atzeko aldean dago altxor txikia ere: Errotatxo, garai bateko errota eta zerrategia. Asteburuetan martxan ikusteko aukera dago, eta egun berezietan, errotako irinarekin egin-dako opil eta taloak jateko aukera ere izaten da, tailer eta ekintzez osaturiko programazioarekin. Hortik gertu kokatzen da baita Lizarrustiko Parke txea, Aralarko Parke Naturalaren ateetako bat. Handik abiatuta irits gaitezke Lareoko urtegiara, paseo bikain baten ondoren, edota Uiduiako txabolara, mendi buelta handiago bat egin nahi badugu. Eta handik aurrera, Jentilari ere dago... misterioz beteriko trikuharri bat.

Herrigunera jaitsita, badago kokagune garrantzitsu bat Ormaiztegi herrian: Iriarte Erdikoa baserria. Hortxe dago Zumalakarregi museoa, To-



mas Zumalakarregi eta gerra karlistak ezagutzeko espazioa izateaz gain, XIX.mendera gerturatzen auzoak paregabea. Bertako erakusketak, tailerrak eta ekintza programak gure egungo gizartearen ulertzeko bidea ere badira. Ez galdu Eleganteen bilkura! Horiek bai janzkera eta ohitura ikusgarriak.

Ormaiztegitik gertu dago baita Igartubeiti base-ri museoa. Haurrentzako tailerrak eskaintzen dituzte asteburuan, eta baita helduei zuzendutakoak ere. XVI.mendeko euskal baserri bateko bizitza ezagutzeko zein dolarearen erabilari buruz ikas- teko ekintza ugari burutzen dituzte.

Eta amaitzeko, Zeraingo herriraino gerturatu be- har dugu. Han kokatzen da Goierri ireki zen lehen museoetako bat, etnografia gaiei buruzkoa. Euskal kultura eta ohiturez ikasteko gune bat da, baina baita inguruneaz nola bizi eta ikasi izan den ulertzeko espazio bat ere. Herrigunetik gertu daude Aizpeako meategiak, Aizkorriko Parke Naturalaren barrena, garai bateko lanbide eta ekonomia iturri nagusienetako baten arrasto direnak.

Ondarera gerturatzen auzoak batzuk soilik izan badira ere, badira hurrekin gure ondareaz gozatzeko aukera paregabeak Goierri. Bertako programazioa eta ekintza bereziak izaten dira asteburu eta oporraldi garaian eta askotan, uste baino gertuago ditugun altxor ezutuak ezagutzeko aukera ezin hobea bihurtzen dira.

Herriko festen kronika

.....
Aurtengoan ere primerako festak izan ditugu! Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu jai hauek posible egin dituzten guztiei!
.....

Apirilean hasi zen, ohi bezala, jai batzordea buru-belarri festen antolaketan lanean. Bilerara oparoak izan dira eta hainbat adinetako herritarrak bildu izan dira: ekintzak proposatu, horiek antolatzeko beharrezkoak zerrendatu, boluntarioen sarea osatu, aurrekontuak eskatu...

Irailaren 18an, osteguna, hasi genituen jaietako ekintzak: hezitzaileek haurrentzako txapa tailerra egin zuten. Ondoren jubilatuek eskaini ziguten askariarekin osatu genuen arratsaldea.



Ostiralean izan zen, ordea, jaien hasiera ofiziala. Aurrez, ohiko zinta karrera antolatu zuten guraso elkartekoe eta askaria ere eskaini zuten. Ondoren, kateorraz taldekoek pregoia irakurri eta eta Ijito jai-tsiera egin zen.

Buruhandiak izan genituen ondoren, haur eta gazteak korrika jarri zituzten, eta baita helduren bat ere.

Aspaldiko ohiturak berreskuratzeko asmoz, Itsasondo- Arama futbol partida izan zen, emoziorik ez zen falta izan! Arama atera zen garaile.

San Martin jaietan, berriz, Itsasondo izan zen garaile.



Herri afari bikaina zerbitzatu ziguten, aurtengoan Larrea Katerineko lagunek, eta punk doinuekin astindu zuten herria Rebel Noise eta Kaleko Urdangak taldeek!



Berandutu bazitzaigun ere, gustura egon ginen DJ Bullen musikarekin.

Tira, goizaldera arte gelditu ziren herritarrek baratxuri-zopa eta txokolate-janarekin amaitu zuten eguna.

Larunbat goizean goiz eresiarekin ekin genion egunari eta Beitiko igoeran atera zuten izerdi pixka bat herriko haur eta gaztetxoek. Ohi bezala, paella erraldoia izan zen guztion gozagarri!




Bazkalosterako, aurreikusita Kalaka jolasak bazeuden ere, arazo tekniko bat dela medio ezin izan zuten bertaratu.

Ijito Showaz gozatzeko aukera izan genuen, eta, ondoren, sariak eta aipamenak banatu ziren.



Aurten ere, guraso elkartekoek eskainitako hanburgesa-jana izan genuen otordu, mundiala!

Giroa berpiztu zuten Muxutruk erromerikoe eta jarraian, DJ Pottokis izan genituen, giroari eutsi eta goizaldera arte musika jarritz!





Igandean, haurren gustuko puzgariak egon ziren goiz eta arratsaldean. Eguerdian, ohiko legez, hamaiketakoak izan genuen.



Arratsaldean, herriko txikiak ikusi ahal izan genituen pilota astinduz eta gazteek frontenis txapelketako finala jokatu zuten. Bietan giro aparta egon zen!



Amaitzeko, Ijitto igoera izan genuen, eta Katehorratz taldeak Futbol taldeari pasa zion erreleboa, hurrengo urtean pregoiaz arduratzeko.

Festak, jai giroan, sagardo dastaketarekin amaitu genituen.



Jaiak bukatutakoan, urriko herri bizitza baztordean egin genuen festen balorazio saioa eta jaiak orokorrean ondo baloratu diren arren, hobetzeko zenbait alderdi ikusi dira. Hurrengo urterako kontuan izango direnak.

Hurrengo urtean gehiago eta hobeto!
Gora Ijittoen jaiak!



Helene Reyes

Itsasondoko Helene Reyes, 2012ko urtarrilaren 29an jaioa, DBHko 2. mailan dabil gaur egun, Ordiziako Oianguren Institutuan. Igerilari gaztea da, eta txikitatik uztartu ditu kirola eta ikasketak. Elkarriketa honetan, bere ibilbidea, Espainiako Txapelketako esperientzia eta etorkizuneko ametsen inguruan hitz egin digu.

Txikitan non ibili zinen eskolan?

Itsasondoko eskolara etortzen nintzen. Egia esan, oso gustura: lagun asko nituen. Umetan, bertan, Itsasondon, egin dut bizitza.

Eta orain, non zaude ikasten?

Ordizian ikasten dut, Oianguren Institutuan. DBHko 2. mailan nago.

**Aldaketa handia izan da Urkipe-
petik Oiangurenera joatea?**

Bai, egia esan, Itsasondon dena askoz lasaia da. Ez dago ikasteko presio handirik, ez daude horrenbeste azterketa... badakizu. DBHko lehenengo urtean salto edo aldaketa handia nabaritu nuen. Bat-batean hasten zara eduki gehiago ematen edo lantzen eta azterketak egiten, eta hori ez genuen egiten Urkipen. Norberak bere burua ondo antolatzea oso garrantzitsua da: azterketak prestatu, etxerako lanak egin...

**Urkipe ez zenuten azterketa-
rik egiten?**

Ez, Itsasondon helburua zen gaiak lantzea eta ulertzea. Irakasleek ziurtatzen zuten ikasten ari zinela, baina norbera bere erritmoan. Oiangu-
renen, berriz, azterketa eta proba gehiago egiten ditugu, eta horien bitartez baloratzen gaituzte. Askoz ere lasaia da zen Urkipen, egia esan. Institutuan nagoenetik konturatu naiz denbora ondo antolatzea oso garrantzitsua dela.

**Ordu asko pasatzen dituzu
ikasten?**

Bueno... ordu erdi edo gehiago, garaiaren eta ikasgaiaren arabera. Baina, esan bezala, garrantzitsuena da denbora ondo antolatzea.

**Eta entrenamenduekin nola
moldatzen zara?**

Astean hirutan entrenatzen dut. Astearte eta ostegunetan 18:00etan, ostiraletan 20:45ean. Astearte eta ostegunetan bazkaldu eta gero badut tarte bat etxerako lanak egiteko edo ikasteko. 20:00etan edo itzultzen naiz etxera eta afaldu ondoren ere izaten dut ikasteko edo atseden hartzeko tarte. Ostiraletan, arratsaldetan, denbora gehiago izaten dut, entrenamendua gauzez delako. Asteburuetan, askotan, txapelketak izaten ditugu.

**Noiztik ari zara igeriketan? Zer
dela eta hasi zinen?**

7 urterekin hasi nintzen, nire ahizparen eraginez. Amarekin joaten ginen igerilekura, eta, egun batean, gaur egun nire entrenatzailea denak, ahizpari taldean sartzeko proposamena egin zion. Horrela hasi zen bera. Familia, noski, bere txapelketak ikustera joaten ginen, eta niri ere gogoa piztu zitzaidan. Denbora baten ondoren, aukera izan nuenean, taldean sartu nintzen.

**Zenbat denbora daramazu ige-
riketan?**

Sei urte. Orain kadete mailan nago, lehen urtean. Aldaketa nabaritu dut. Azken finean, entrenatzearen poderioz, zure fisikoa aldatzen doa, material hobe erabiltzen hasten zara... entrenamenduak potenteagoak dira. Hasieran aleta txikiekin ibiltzen ginen; orain erabiltzen ditugun aletak, aldiz, profesionalagoak dira. Monaletarekin ere hasi gara.

**Zer modalitatetan lehiatzen
zara?**

Lau modalitate daude: "Superficie" monaletarekin; "bialetas", krol deritzona; "apnea" monale-

tarekin; eta, "escafranda", monaletarekin eta aire konprimituko botilarekin.

Nik gehienbat krol eta monaleta egiten ditut, eta apnean ere ibiltzen naiz noizean behin. Baina azken horretarako asko entrenatu beharra dago. Apneari denbora asko dedikatu behar zaio, ez zaizu lehenengoan ateratzen eta. Infantiletan 25 metro apnea egiten da, baina hortik aurrera 50. Orain 50 egitea dagokit. Uda honetan probatu dut, baina oraindik ez naiz iritsi 50 metro egitera arnasarik hartu gabe. Infantiletan nengoenean, Espainiako Txapelketan 25 metro egin nituen 10 segundo eta 77 zentesimako denboran. Ea 50 egitera iristen naizen.

**Nola iristen da bat Espainiako
Txapelketara?**

Proba bakoitzerako "minima" batzuk ezartzen ditu federazioak, hau da, gutxieneko denbora batzuk. Denbora horiek hobetuz gero, Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera duzu. Zenbat eta minima gehiago lortu, orduan eta aukera gehiago.

**Familiatik dator igerilaria iza-
tearena?**


Ba ez dakit. Nire gurasoak ez dira inoiz igeriketan lehiatu, baina aita aletekin igeri egitea gustuko du. Esan bezala, lehenengo ahizpa hasi zen, eta, ondoren, ni.

**Espainiako Txapelketako pro-
ba bat irabazi zenuen. Nolakoa
izan zen esperientzia?**

Txapelketa Gironan izan zen, Sant Feli de Guíxols-en. Egia esan, ilusio handia nuen dominaren bat irabazteko. Asko berotu nintzen eta neure buruari saiatu beharra nuela esaten nion behin eta berriro. 25 apnea



Espainiako txaplektan lortutako dominak.



Iruñean txapelketa batean.



Podiumean urrezko dominarekin.



Bi dominarekin.

proban ondo nindoan eta oso gutxiatik ez nintzen lehenengo izan. Hala ere, azkenean, bi igerilarik, lehenengoak eta bigarrenak, akats bat egin zuten, eta ni gelditu nintzen lehen postuan. Araua da pareta ukitu aurretik ezin dela arnasa hartu; haiek burua atera zuten pareta ukitu aurretik, eta, deskalifikatu egin zituzten. Horrela, 25 apnean urrezko domina lortu nuen.

50 aletetan, berriz, brontzezko domina. Zentesima bategatik irabazi nuen brontzezkoa! Ni azkeneko seriean nindoan. Normalean lehenengo seriean doaz polikiengatik egiten dutenak, hau da, denbora altuena egiten dutenak; eta azkeneko seriean

azkarrenak. Nire aurreko seriean zihoan batek 26 segundo eta 44 zentesimako denbora egin zuen, eta nik banekien hor bueltan ibiliko nintzela. Lehenengo eta bigarren postuan nire serie berean zihoazen bi igerilarik irabazi zuten. Nik hirugarren postua eskuratu nuen, 26 segundo eta 43 zentesimako denborarekin. Zentesima bategatik brontzerik gabe gelditu zen beste neska. Horrela dira kontuak.

Urduritasunik sentitu zenuen?

Bai, noski. Hala ere, niretzako momenturik okerrera da zain zauden tarte hori. Behin tranpolinean zaudenean, niri behintzat, akumulatuta duzun

tentsioa joan egiten zait, has-teko gogoia sentitzen dut. Hasi eta bukatzekoa.

Espainiako Txapelketan, hortaz, bi domina.

Bai, bat urrezkoa, eta, bestea brontzezkoa. 25 apnean urrea eta 50 aletasen brontzea.

Espainiako Txapelketarako prestaketa berezia egiten duzue?

Bai, normalean, udan, institutua bukatzean. Maiatza inguruan hasten gara Espainiako minimak prestatzen. Eta entrenamenduak gero eta intentsiboak izaten dira, teknika eta erresistentzia hobetzeko. Hala ere, ni ikasturte osoa aritzen naiz minimetan eta Espainiako Txapelketa prestatzen.

Dena Espainiako Txapelketan zentratzen da?

Bai, azken finean bai. Gainerako txapelketa arruntetan helburu bat duzu: minimak egitea. Eta zertarako? Espainiako Txapelketara joateko.

Eta, orain, zeintzuk dira zure helburuak?

Momentuz, ikasturte hasieran gaudenez, ohiko errutinara itzultzea eta txapelketa arruntetan parte hartzea. Espainiakoetan lortutako denborak hobetzea gustatuko litzaidake, eta ahalik eta minima gehien lortzea. Hala ere, kideon artean elkar animatzen gara eta askotan esaten dugu dominarik lortzen ez badugu ere ez dela ezer gertatzen. Hori bai, lortzen badut, hobeto!

Pasa den astean, adibidez, txapelketa arrunt bat izan nuen. 50 monaletarekin eta 100 aletekin egin nuen. Denboraldi honetarako helburu bat jarri nion neure buruari. 50 metrokoan 25 segundotik jaitea, eta 24 segundoko denbora egin nuen. Guztiz motibatuta nago.

Lehiakide asko dituzue?

Beno. Txapelketa arruntetan, lau talde lehiatzen gara. Tafalla, Iruñea, Tolosa, eta gu, Ordizia. Baina Espainiakoetan talde asko elkartzen gara eta askok eta askok guk baino askoz gehiago entrenatzen dute: hiru orduko entrenamenduak, ia egunero. Eta sekulako instalazioak dituzte.

Denboraldia nola antolatzen duzue?

Denboraldiak ikasturte osoa irauten du: irailetik ekainera. Espainiako Txapelketarekin bukatzen dugu, eta gero udako atsedendia. Hala ere, udan ere zertxobait egiten dut.

Europa mailan parte hartzeko aukerarik?

Gure mailan ez dago horrelako aukerarik. DBH4tik aurrera, junior kategorian, posible izango da, baina momentuz ez.

Aurrera begira, kirol munduan zer lortzea gustatuko litzaidake?

Asko esatea da, baina gustatuko litzaidake World Cup batera joatea. Txapelketa horretan munduko herrialde askotako igerilari onenak elkartzen dira. Maila oso altua da. Baina horra iristeko oso ona izan behar duzu eta besteengandik asko nabarmendu behar zara.

Jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, noski! Oso gustura nabil. Domina gehiago irabaziko ez banitu ere, jarraituko nuke. Kirol hau nire pasioa da. Irabaztea gustatzen zait, baina ez da nire helburu nagusia.

Eta ikasketetan nola zoaz?

Ondo. Uste dut nahiko ondo uztartzen ditudala kirola eta ikasketak. Aste gogorretan, batzuetan, entrenamendura ez joateko tentazioa sentitzen dut. Baina joan egiten naiz. Izan ere, igeri egiteak asko laguntzen dit deskonektatzen eta lasaitzen. Nire denbora ahalik eta ondoen antolatzen ahalegintzen naiz.

Zer ikasi nahiko zenuke? Bazu duzu ideiarik?

Ba, gaur-gaurkoz, medikuntza esango nizuke. Pediatra izatea gustatuko litzaidake. Umeak oso gogoko ditut, eta uste dut polita izan behar duela jendea iragazteaz. Azkenean zu medikura joaten zara laguntza behar duzulako eta laguntza hori edo segurtasun hori familia bati eskaintzea oso polita iruditzen

zait. Gogor ikasi beharko nuke, hori bai. Bestela, fisioterapia ere gustatuko litzaidake, kirolarekin lotura duelako.

Anekdotak bat?

Bai. Kirolarekin lotura duena, noski. Lehenengo urteko anekdota bat datorkit burura. Txapelketa batean izan zen. Oso urduri nengoen eta monaletaren ordez aletekin joan nintzen irteerara. Hala ere, proba hasi baino lehen ohartu nintzen, eta korrika joan nintzen monaleta hartzera. Iritsi nintzenerako nire serieko kideak uretan zeuden. Ia negarrez iritsi nintzen uretara! Baina iritsi nintzen. Orain barrez gogoratzen dut.

Elikadura bereziki zaintzen duzue?


Ez, dieta berezirik ez dugu izaten. Osasuntsu jatea bai, noski, garrantzitsua da. Baina ez digute jarraibide zorrotzik ematen. Igeriketaz gain, bestelako ariketa batzuk egitea gomendatzen digute, korrika egitea eta luzatze ariketak egitea, adibidez.

Ordizian badago igeriketa eta monaleta tradizioa, ezta?

Hegats-igeriketa ez da hain ezaguna, baina OKEU urpekoak badarama urte asko Ordizian. Taldean badaude Europako txapelketatan eta mundial baten parte hartutako igerilariak. Taldeak Espainiako txapelketatan urtero dominak lortzen ditu.

Kirol garestia da?

Bai, nahiko garestia, izan ere, materiala oso garestia da. Taldeak uzten dizkigu aletak eta monaletak, baina maila altuetan norberak bereak erosi behar ditu. 700 eurotik gora balio dezake monaleta batek. Neopreno arina ere oso garestia da: 300-400€ inguru.



Prosa behatokitik

Aingirek Aristotelesen arreta erakarri zuten; hark Lurraren erraietatik zetozela pentsatzen zuen. Baina XX. mendearen hasieran, Johannes Schmidt biologo daniarrak jakin zuen ipar latitudeko 22 eta 30 gradu bitartean eta mendebaldeko 48 eta 65 arteko luzeran, sargazoen itsasoan, han, mutazio geldoen ziklo baten amaieran, ur-ahoen


ertzean hainbeste urtez bizi izan ziren aingirak lauhun metroko sakonerako ilunpean murgiltzen direla berriro, kilometro erdiko loditasun isilean ezkutaturik, arrautzak jarri eta milioika milioiko heriotzan disolbatzen direla.

Inork ezin du ikusi galaxia beltzaren azken heriotza eta berpizkunde dantza hori, baina larba ñimiño eta olioztatuek,

«*Anguilla anguilla*» izenekoek, as-tiro zulatzen dute horma berdea.

Eta haiek ere hizkuntza hil batean sartuko dira, leptozealoak deituko zaie, udaberria da ozeanoaren bizkarrean, eta urtaroen pultsoak sakon-sakonean piztu du begirada mikroskopikoetatik zuzentzea, ur epelago eta urdina-goetara igotzea.

Gainazaletik berrogeita hamar metrora leptozealoak ontzira-



tzen dira eta hiru urte baino gehiagoz kalibre termiko zehatzen hodia zeharkatuko dute, eta killa eta aparren azpitik irrist egingo dute Europako kostalderaino.

Aingirak portura iristen direnean, ez dute jakingo angelak deitzen hasi direla.

Erokeriaz eta mila urez egina dago ibaien eta uholdeen kontrako eraso, martxoan eta apirilean milioka angula, iluntasunaren eta urruntasunaren sen bikoitzak zurrunbilotuta, gauaren zain daude, igotzeko borondate itsuan, ezerk ez ditu geldiaraziko, ez ibairik, ez gizonik, ez eskusarik, ez ur-jauzirik, Europako ibaien erasorako suge ugariek gorpuz josita utziko dituzte oztopo bakoitzean, zatitu eta bihurritu egingo dira meandroetan.

Egunez lozorro sakon batean etzango dira, beste begientzat

ikusezinak, eta gauero berregingo dute kable beltz hits irakina, eta izarren formula baten gidaritzapean ibai-iturrietara joango dira, etapa kontaezinetan ezer ez dakiten eta ezer espero ez duten etorrera bat bilatuz; haien indarra ez da haiengandik sortzen, haien arrazoa bilduta dago beste mataza batzuetan.

Eta hazi egiten dira. Hemezortzi urtez bigarren zati batean, zati jangarrira, materia organiko esekira daramatzan irristatze gainjarria errepikatuz, aingirak hazi eta kolorez aldatzen dira, pubertaroak zartada bat bezala erasotzen ditu eta kromatikoki eraldatzen ditu: jateari utziko dioten ordua iritsi da, azkar-azkar azken ziklorako, aingira zilarreztatua zerbaiten deiazen zain dago geldirik: bat-batean, gauez, aldi berean,

ibai oro ibaian behera da, iturri guztietatik ihes egin behar da, hegats tenkatuek uraren sorbatza urratzen dute haserre bizian.

Bada une miresgarri hori, non betirako desagertzen baitira, non ibaien bokaleaz haraindi ezerk, sareak edo parametroak edo biokimikak ezin baitu bere jatorrira nola itzultzen den jakin gabe, suge atlantikoa den hori, zilar koloreko zinta itzela, hortz zorrotzeko aho eta begi zaintzaileekin, sakonean irristatuz, korronte batek pasiboki mugiarazten ez duena, nahimen baten alaba, zeinarentzat eldarnioaren alde honetako hitzik ezagutzen ez baita, hasierako umetokira itzuliz, sargazoetara, non eme intseminatuek berriro bilatuko baitute sakonera desobiratzeko, ilunpean sartzeko eta elezahar eta zoluren sabelaren sakonean hiltzeko.

Hitzarrek 3 urte: iragana eta etorkizuna

Duela hiru urte abiatu genuen Hitzar komunitate energetikoa, herritarron artean elkarlanean sortutako proiektu xume bezain ausarta.

Hasieran eguzki plaka batzuk eta ilusio handia besterik ez genituen, gaur, berriz, instalazioaren kudeaketa, bazkideen parte hartzea eta gure herrian errotutako esperientzia sendoa ditugu.

Hiru urte hauetan, **Itsasondon eta inguruan energia modu berriak ulertzeko eta praktikan jartzeko bide bat ireki dugu**. Ez gara soilik kilowatt-orduak partekatzen ari: **energia ulertzeko kultura bat** ari gara eraikitzen.

- **2 instalazio fotovoltaiko martxan**
- **80 bazkide baino gehiago**
- **Biziola, Izarkom, Goiener, Ernamuina eta Goieki-rekin elkarlanean**

Bidean ez dira erronkak falta izan: ekoizpenaren gorabeherak, administrazioaren zailtasunak edo eguneroko kudeaketaren ñabardurak... Baina horrek guztiak sendotu egin gaitu. **Ikasi dugu energia modu kolektiboan ekoitzi, banatu eta partekatu daitekeela, eta badugula gaitasuna gure etorkizun energetikoa kudeatzeko.**

Orain, hirugarren urteurrena ospatzen dugun honetan, aurrera begira jarri nahi dugu. Fotovoltaikoak gero eta garrantzi handiagoa izango du energia trantsizioan, eta gure esku dago trantsizio hori **denontzat bidezkoa, gertukoa eta partekatu** izatea.

Hitzarrek hiru urte bete ditu, baina **hau hasiera besterik ez da**. Komunitatearen parte izan nahi baduzu, **ongi etorri! www.hitzar.eus**

3 urteko datuak

LABURBILDUTA



**2 instalazio
fotovoltaiko
martxan**



+80 bazkide



**Biziola, Izarkom,
Goiener,
Ernamuina eta
Goiekirekin
elkarlanean**

Hitzar



Tarik Hassad Marzouk

.....
Itsasondoko lasaitasuna
izan zen bertara bizitzera
etortzeko arrazoia.
.....



Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2025eko urtarrila hasieran etorri nintzen.

Non bizi zinen lehen?

Idiazabalدارra banaiz ere, azken urteak Ataunen dudana etxean pasa ditut.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Herri batzuk "fitxauta" nituen, oso garbi nuen herri txiki baten bizi nahi nuela. Lagun baten bidez Itsasondon bizitzeko aukera sortu zen eta horrela erabaki nuen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egun hartatik?

Etorri nintzen lehen egunean, etxera hurbildu eta oso auzo lasaia iruditu zitzaidan, etxera igo, lehiotik begiratu eta pandemiako garaia etortzen zitzaidan

gogora, ezin etxetik atera ibili ginela eta oso jende gutxi zebilela kaletik. Orain ohituta nago, baina lehen inpresio hori ez zait ahaztuko.

Zer lanbide duzu?

Olaberriko fundizio enpresa baten egiten dut lan, garabian elektroimanekin.

Itsasondotik zer ez zaizu gustatzen?

Arratsalde iluntze aldera girorik ez dagoela, aste barruan batez ere, jeisten zaren orduaren arabera ez duzu ezer zabalik bilatzen. Gabaz itzalita egoten da herria.

Itsasondotik zer gustatzen zaizu?

Eguneko lasaitasuna, egunez oso lasaia da eta hori da nik bilatzen nuen.

Zer zaletasun dituzu?

Mendia, txakurrarekin asko ibiltzen naiz mendian, eta inguruko hondartzatan ere. Libre dudana guztietan mendian txakurrarekin edo hondartzan nabil.

Janaririk gogokoena?

Ataungo Troskaeta tabernako edozein plater, gehiena eskalo-pea eskatzen dut.

Edaririk gogokoena?

Garagardoa.

Gogoko duzun Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Idiazabalgo edozein txoko, mendi ingurua adibidez, asko ibili naiz txakurrarekin bertatik.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Edozein txorradagatik egiten dut barre!

Itsasondon biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Idiazabalen edo Seguran, bitako batean biziko nintzateke.



Urkiye eskolako lanak martxan

.....
Hamar urteko lan eta izapideen ostean,
jada martxan dira Urkiye Eskola berria
eraikitze lanak. Itsasondoko hezkuntza
komunitatearentzat urrats handia izango
den proiektu hau Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak sustatzen du, eta
3.887.976,63 euroko aurrekontua izango du.
.....

Obrak Jaizubia eta Ekolan enpresek gauzatuko dituzte. Lehenengo fasean, eraikin zaharra eraitsi eta haren hondakinak behar bezala kudeatu eta erretiratu dira. Hori eginda, lur mugimenduak egingo dira, etorkizuneko eraikineren zimenduak prestatzeko.

Lanak irailean hasi ziren, eta 15 hilabeteko iraupena aurreikusten da. Proiektua Asier Atxurra eta Unai Zelaia arkitektoek idatzi dute, eta eskola berriak 1.246 metro koadroko azalera eraikia izango du. Eraikinak bi solairu izango ditu, baita jolasgune zabal bat ere, gaur egungo eskolako beheko eraikina zegoen kotan kokatua.

Lanak amaitutakoan, Goiko Kaleko goiko kotan plaza bat sortuko da, herritarren erabilerarako gune berri bat eskainiz. Horrez gain, eskolako igogailuak erabilera publikoa izango

du, irisgarritasuna hobetuz eta auzotarren eguneroko mugikortasuna erraztuz.

Bestalde, Itsasondoko Udala eskolaren ondoan dagoen J.I.3 Etxeberri-Senpertegi hirigintza eremuan urbanizazio lanak egingen ari da, eskola berriaren jolasgunera sarrera bermatzeko. Lan horien lehen fasea aurtan gauzatuko da, eta bigarren fasea 2026an egitea aurreikusten da.

Urbanizazio lanen lehen fasea Tesinsa enpresa ari da egingen, eta proiektu honek 312.565,64 euroko kostua izango du.

Udalak lan horiekin Itsasondoko hezkuntza komunitatearen etorkizuna bermatu nahi du. Herri txikietan ekipamendu egokiak izateak berebiziko garrantzia du, eta eskola berriak herriaren erdigune berria bilatzeko potentziala dauka.

Zubingo zabortegiaren ingurumen berreskuraketa lurrak ezkutatzeko duena

Bersotegi auzoaren amaieran, naturarekin bat egiten duen paisaiaren atzean, badago Itsasondoko iragan industrialaren aztarna garrantzitsu bat: Zubingo zabortegia. XX. mendean zehar, bertan pilatu ziren Legorretako San Jose meatzetik ateratako lurrak, eta horien gainean sortu zen gaur egun ikus daitekeen mendatea. Garai hartan, eremu horretan zegoen baserri zaharra ere lurperatua izan zen.



Gaur egun mendixka itxura duen arren, Zubingo zabortegiak barruan meatzetako betelaneetako materialak gordetzen ditu, eta horien ondorioz, metal astunen kontzentrazio nabarmenak daude lurren artean. Euri-uren bidez, metal horiek errekarara isurtzen dira, eta horren adierazgarri dira gaur egun ikus daitezkeen ur gorrixkak.

Azken urteotan, kontrolik gabeko erabilerak ere izan dira eremuan: "tiro al plato" jarduerak eta mendiko motorren zirkuak, besteak beste. Horrek eremua zikindu eta kaltetzea ekarri du.

INGURUMENA BERRESKURATZEKO URRATSAK

Itsasondoko Udalaren helburua argia da: Zubingo eremua ingurumenaren aldetik berroneratu, eta segurtasun fisiko eta kimikoa bermatzea. Hau da,

bertan dauden elementu kutsatzaileek ez dezatela eragin negatiborik izan ez lurzoruan, ez landaredian, ezta bertako bizidunengan ere. Halaber, mendatea betelanez osatuta dagoenez, beharrezkoa da lurren kohesioa eta egonkortasuna aztertzea, lubizi arriskuak saihesteko.

Helburu horiek betetzeko, Udalak azken urteotan azterlan ugari egin ditu. Azkenaldian egindakoen artean, bi nabarmentzen dira:

- Lurzorua kalitatearen azterketa San Jose meatze baltsan (Afesa, 2025)
- Meatze baltsaren egonkortasun azterketa (Ingelur, 2025)

Lan horiek biak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak diruz lagundu ditu, 011-SUE-2023 dirulaguntza le-roaren bidez.

EUROPAKO FUNTSEN LAGUNTZA

Zubingo zabortegiaren berreskuratze proiektua gauzatzeko, Itsasondoko Udalak Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (Next Generation) esparruan 736.643,00 euroko dirulaguntza jaso du.

Aialur enpresa ari da proiektua idazten, eta egindako azterketen arabera, ez da beharrezkotzat jotzen esku-hartze handirik, baizik eta egonkortasun fisiko eta kimikoa bermatzeko neurri zehatzak hartzea.

Proiektuaren epeak betez, lanak 2026ko ekainerako amaituta egotea aurreikusten da.

Itsasondoko Udalak konpromiso sendoa hartu du bere ingurumena zaintzarekin. Zubingo zabortegiaren berreskuraketak ez du soilik iraganeko jarduera baten ondorioak konpontzea bilatzen; etorkizun jasagarri eta seguruago bat bermatzea ere bada helburua, herritar guztien onerako.



UDALEKUAK (ekainaren 23- uztailaren 18ra)

Herriko 40 haur ibili dira udaleku irekietan. Ekintza ugari egin dituzte, irteerak, eskulanak, sukaldaritza, jolasak... eskerrik asko begirale lan taldeari!



ITSASONDO- ORIO IBILBIDEA (uztailak 5)

Giro onak lagunduta Itsasondotik abiatu eta Orio arteko bidea egin genuen. Azken urteetan ohitura galduta bagenuen ere, berrartu egin nahi izan da. Partaideek bertan bazkaldu zuten eta egun bikaina pasa zutela adierazi zuten.



IJITTOEN JAIK (irailak 18, 19, 20, 21)

Kronika zehatza 8. orrian



PINTXO POTEA (irailak 26, urriak 3, 10 eta 17)

Herriko eragileen ekimenez eta herri bizitza sustatzeko helburuarekin, aurten ere, pintxo poteak izan ditugu.



MILA, 102 URTE (urriak 8)

Ez dugu makala, Mila! 102 urte bete ditu itsasondoar naparrak. Bejondeizula! Bizi nahi elkarteko kideek berarekin ospatu nahi izan zuten urtemuga.



JUBILATUEN BAZKARIA (urriak 19)

Ohiko legez, aurren ere, erretiratuek bazkaria egin dute Nautikon. Aparteko menua izan zen eta giro ezinhobean pasa zuten eguna. Elkar-tekko zaharrenak omendu zituzten.



URRIKO ASTEBURUA (urriak 25-26)

Udazkeneko irteera egin zen urriko azken asteburuan. Giro petral xamarra egin bazuen ere, bertaratuek ederki pasa zuten hainbat ekintza eginez.

HILABETE HAUETAN AIPAGARRIAK DIREN BESTE ZENBAIT IRUDI:



ESKOLA ZAHARRARI, AGUR

Kostata, baina azkenean hasi dira eskola zaharreko eraisketa lanak.



MARKAGAILU BERRIAREN FINANTZIAZIOA

Herriko ekimenetan eta Eskola Kirolean erabiltzeko markagailu berria eskuratu ahal izan dugu hainbat finantziazioen bidez. Eskertza modura, frontoian publizitate hau jarri da.



GAZTELEKUA

Gaztelekuko erabiltzaileekin batera garbiketarako pare bat saio antolatu genituen, espazioa txukuntzeko helburuarekin. Ea guztion artean horrela mantentzen dugun.



PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

Urtean zehar ugariak izan dira itsasondorrek Palestinari elkartasuna adierazi eta genozidioaren amaiera eskatzeko egindako elkarretaratzeak. Azken asteetan ere, ez da etenik izan.

liburu gomendioa



SORGINAK, PUTAK, TERRORISTAK Olatz Dañobeitia

Tortura atzo, gaur eta bihar da. Horixe da liburu honen abiapuntuetako bat. Lehenago aitortu nahi ez, eta orain iraganeko kontua dela sinestarazi nahi digute; bortxa egoera horiei ez ikusiarena eginda, orde, mina eta indarkeria iraunkor bihurtzea baino ez da lortzen. Horretaz jakitun, eta torturak indarkeria matxistaren beste ertz bat direla sinetsita,

liburu honetako egileek arduraz heldu diote prozesu honi: Euskal Herriko gatazka politiko-armatua borrokatu diren emakume torturatuek pairatutako bortxa berezitu hori aztertzeko eta kokatzeko marko feminista bat eraikitzea, elkarlanean eta orain arte egindako aitortza eta osatze bidearen jarraipen gisa. Ariketa kolektibo honetan, beraz, ikuspegi feministatik aztertu nahi izan dute errepresio-molde jakin hori, erreparazio pertsonal eta kolektiboa helburu.

Martxelo Otamendi,
handira jotzeko
kazetaria
Garbiñe Ubeda



El último secreto
Dan Brown

Sakeleko bihotzak
Julen Apella



El susurro del fuego
Javier Castillo

Esnatu ala hil
Iñaki Lurrebaso eta
Garikoitz Goikoetxea



La casa de las huéspedes
Ana Lena Rivera



Aurpegien lapurra
Ibon Martin

El nuevo viaje del principito
Eloy Moreno



Garen piztiaz beste
Iñi Etkezarreta,
Elene Lopetegi



La profesora
Freida Macfadden



Errezeta

Barazki eta gaztaina frigituak arrautzekin



OSAGIAIAK

Barazki frijitu opila egiteko:

- Patata txikiak, 500 g
- Ilar izoztuak, 150 g
- Gaztainak, 150 g
- Baratzuri-atal pare bat
- Aza laurden bat (250 g)
- Kuiatxo bat
- Azenario bat
- Oliba olio
- Gatza eta piperbeltza

Arrautzak egiteko:

- Arrautzak, 4
- Pipermin fresko bat
- Baratzuri-atal bat
- Oliba olio
- Gatza

Entsalada egiteko:

- Eskarola bat
- Sagar bat
- Ziapea, koilarakada txiki bat
- Ozpina, koilarakada txiki bat
- Oliba olio birjina, 50 g
- Gatza



PRESTAKETA

Gaztainei laban batekin hozkada bat egin eta katilu batean sartuko ditugu. Ur tanta batzuk gainetik isuri eta sukaldeko plastikoarekin estali. Ondoren, mikrouhin labean sartuko ditugu 3 minutuz. Atera, zuritu bero dauden bitartean eta geroko gorde.

Patatak ondo garbitu eta egosten jarriko ditugu lapiko batean, urez estalita eta gatz pixka batekin 25 bat minutuz. 15 bat minutu falta direnean, gaztaina zurituak gehituko ditugu bertara eta 5 minuturen faltan, ilarrak. Atera uretatik eta utzi iragazten.

Patatak egosten dauden bitartean, baratxuria, aza, kuiatxoa eta azenarioa laukitxotan moztu eta erregosten jarriko ditugu zartagin batean oliba olio pixka batekin 15 bat minutuz. Barazkiak erregosita dauzkagunean, patatak, gaztainak eta ilarrak gehituko dizkiegu gainerako barazkiei. Pixkanaka eta sardexka baten laguntzarekin, zartaginean dugun guztia birrintzen eta trinkotzen hasiko gara. 15 bat minutu horrela egon eta gero, gatza eta piperbeltza bota, sua igo eta patata tortilla baten itxura ematen joango gara. Bi aldeak gorritu zaizkigunean, plater batera atera eta zartagina berriro sutan jarriko dugu oliba olio pixka batekin. Zerratu pipermina eta baratxuria eta oliotara bota, jarraian bertan arrautzak banaka frijitzeko.

Garbitu eskarola eta sagarra makilatxotan moztu. Katilu batean ziapea eta ozpina jarri eta pixkanaka oliba olio birjina gehitzen joango gara nahasi bitartean.

Zerbitzatzeko garaian, barazki opil zati bat platerean jarri, haren gainean arrautza frijitu bat eta bukatzeko eskarola eta sagar entsalada pixka bat jarriko diogu aldamenean.

Euskara txukuntzen


EUSKARA MAKARRONIKOA

Ez naiz trebeegia.
Ez dut gehiegi ulertu.
Idoia arratsaldeko sesiora joan da zinemara.

EUSKARA TXUKUNA

Ez naiz oso trebea.
Ez dut asko ulertu.
Idoia arratsaldeko saiora joan da zinemara.

AI ENE!!!!



Eusko Jaurlaritzak INGURA plataforma digitala berrabiarazi du, euskara "edonon, edonoiz eta eroso" ikasteko

Eusko Jaurlaritzak gaur aurkeztu du **INGURA**, euskara online ikasteko plataforma digitala, edozein gailutatik, edozein lekutan eta edozein ordutan ikasteko aukera ematen duena. **Modu horretan**, "hiztun berriak euskarara erakarri eta eremu digitalean sarbidea erraztu nahi diegu."

Ekimena Eusko Jaurlaritzak **euskararen erabilera soziala** bul-tzatzeko duen estrategiaren barruan kokatzen da, euskaltegien lana osatuz eta esparru digitalean ate berriak irekiz. INGURAK ingurune irisgarria, malgua eta erakargarria eskaintzen du, edozein pertsonak hizkuntza ikasten hasteko edo aurrera egiteko aukera izan dezan.

Gaur egun, **14.000 pertsonak baino gehiagok erabiltzen dute INGURA**. Munduan **44.184** euskara ikasle daude, eta Eusko Jaurlaritzak kopuru hori handitzea espero du tresna berri horri esker.

Erabiltzaileek 4 hizkuntzatan jaso dezakete informazioa (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa). Jarduerak egin eta emaitzak gordetzeko aukera ematen du plataformak. Maila bakoitzeko ikas-taroetako eduki batzuk doakoak dira eta beste batzuk matrikulapekoak: gaur egun INGURAN A1 maila eta A2 mailako doako edukiak daude eta ikasten jarraitu nahi izanez gero edota maila egiaztatu, INGURAK aukera ematen dizu euskaltegieta barneratuta dagoelako.

INGURA HABEK bultzatutako proiektua da, Nafarroako Gobernua-ren, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren eta Europar Batasunaren laguntzarekin.

"Proiektu hau hainbat erakunderen artean eraikitzen ari gara, hel-buru partekatuta batekin: gero eta jende gehiagok euskara ikas dezan eta eguneroko bizitzan erabil dezan erraztea".

INGURA euskara mundu digitalean sartzeko ate gisa finkatu da, hiztun berriak erakartzeko eta euskaltegien sarea indartzeko baliabi-de gisa. "Euskara ikastea errazagoa, erakargarriagoa eta irisgarria-go izatea nahi dugu".

AI ENE!!!

agenda

AZAROA

- 21: Kantu afaria
21: Jostailu azoka
29: Gaztain jana
25: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna

ABENDUA

- 3: Euskararen eguna
24: Olentzero eta Mari Domingi

Ekitaldi horiez gain, asteazkenetan, 16:30etik aurrera, plazan kale ekintza izango da eta, ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara gaztelekuan ere hainbat ekintza egingo dira. Animatu eta parte hartu.

Ekintza hauen inguruko informazio zehatza www.itsasondo/agenda.eus atalean topatuko duzue eta <https://t.me/itsasondo> telegram kanalean zabalduko da.

2026rako kultur ekintzak prestatzen dabil Kultura lantaldea. Proposamenik bazenu, jo ezazu kideren batengana edo parte hartu lantaldean!

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Berreskuratze, Eraldaketa
eta Erresilientzia Plana



Europar Batasunak
finantzatua
NextGenerationEU

telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarte	943 881339
Ibalur	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhua Barandiaran
Amaia Ugalde
Aritz Insausti
Danel Etxeberria
Erkuden Mendizabal
Haur eskola
Hitzar komunitatea
Iñaki Aizpuru
Iturriziki guraso elkarte
Maite Lasa
Mikel Ormazabal
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkipe eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA

MARTXOAN

IZANGO DUZUTELA ETXEAN.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA